

## Irailaren 23an HUHEZI itxita egongo da, arratsaldeko 16:00ak arte

2009/09/22

Mondragon Unibertsitateak **2009-2010 ikasturteko hasiera-ekitaldia** HUHEZIn egingo duela-eta, irailaren 23an fakultatea itxita egongo da, arratsaldeko 16:00ak arte. Beraz, ordu horretan geratzen diren eskolak emango dira.

### Egitaraua

Ekitaldia irailaren 23an izango da, **eguerdiko 12:00etan**, eta eguraldiak laguntzen badu, klaustroan bertan egingo da, aire zabalean. Hauxe izango da egitaraua:

- 2008-2009 ikasturteko txostena.
- Ikasgai akademikoa, Aitor Zuberogitia irakasleak irakurrita.
- MUko presidentearen hitzaldia.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren hitzaldia.
- MUko errektorearen hitzak.
- Eusko Jaurlaritzako lehendakariaren hitzaldia.

